BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

5020

AGINDUA, 2012ko azaroaren 7koa, Kulturako sailburuarena, Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzen deialdia egiten duena.

Irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak –uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu duenak– Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen du.

Aipaturiko dekretuaren 5. artikuluan adierazten denez, araututako diru-laguntzen deialdia urtean urteko ekitaldi ekonomikoan egin eta jakinaraziko da Kulturako sailburuaren agindu baten bidez. Deialdian honako hauek zehaztuko dira: diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontuko zuzkidura, aurkeztutako programak edo jarduerak egikaritzeko epea, eskaerak aurkezteko tokia eta epea, erakunde eskatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta, azkenik, kasuan kasu esleitutako diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aipatutako dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, agindu honen bidez gorago aipatutako kontu horiek guztiak zehaztuko dira, bertan ezarritako diru-laguntzen deialdia 2012ko ekitaldian aplikatzeko.

Halaber, eta kudeaketako irizpide gisa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien (IKT) erabilera sustatu nahi da, laguntzak kudeatzeko prozesuen izapideak telematikoki egiteko.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea hauxe da: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egitea. Diru-laguntza horiek emateko modua irailaren 30eko 164/2008 Dekretuak –uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu duenak– arautzen du.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

2012ko ekitaldirako, Agindu honen bidez deitutako diru-laguntzak finantzatzeko guztizko aurrekontu-zuzkidura ehun eta laurogeita sei mila euro (186.000) da.

3. artikulua.– Programak edo jarduerak egikaritzeko epea.

Agindu honen babesean diru-laguntza jasotzeko aurkezten diren programak edo jarduerak 2012ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira nahitaez.

4. artikulua.– Eskaerak eta justifikazioak aurkezteko epea.

1.– Eskaerak. Hilabete bat, agindu hau EHAAn argitaratu eta biharamunetik hasita.

2.– Justifikazioak: bi hilabete, diruz lagundutako programa edo jarduera amaitzen den egunetik hasita, eta, dena den, 2013ko otsailaren 28an beranduenez.

5. artikulua.– Eskaerak eta justifikazioak aurkezteko lekua eta modua, baita kasu bakoitzeko dokumentazioa ere.

1.– Izapidetze presentziala:

a) Eskaerak eta justifikazioak honako leku hauetan aurkez daitezke:

a.1.– Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Erregistroa: Donostia kalea 1 - Lakua I, 2. solairua - 01010 Vitoria-Gasteiz.

a.2.– Eusko Jaurlaritzako Erregistro Orokor Nagusia: Donostia kalea 1 - 01010 Gasteiz.

a.3.– Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Kale Nagusia, 85 – 48001 Bilbao.

a.4.– Eusko Jaurlaritzaren Donostiako egoitza ofizialeko Erregistro Laguntzailea: Andia kalea, 13 - 20004 Donostia.

a.5.– Herritarren Arretarako Bulegoak.

a.6.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren beste erregistro orokor nagusi eta laguntzaileak (72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa; EHAA, 102. zk., 2008ko maiatzaren 30ekoa).

b) Eskaerak eta justifikazioak entrega daitezke, bai zuzenean, bai Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusita dagoen prozeduraren bat erabiliz:

b.1.– Eskaerak: Eredu normalizatua erabili behar da, eta bertako atal guztiak bete (I. eranskina); horrekin batera dokumentazio osagarria aurkeztu behar da (II. eranskina).

b.2.– Justifikazioak: Eredu normalizatua erabili behar da, eta bertako atal guztiak bete (III. eranskina); horrekin batera dokumentazio osagarria aurkeztu behar da (IV. eta V. eranskinak).

c) Eskaera edo justifikazioa posta-bulego batean aurkeztu nahi izanez gero, kartazal irekian aurkeztu behar da, posta-funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkion inprimakiari.

2.– Izapidetze elektronikoa:

Laguntza hauen izapideetan (eskaerak zein justifikazioak aurkezteko) baliabide elektronikoak erabiltzeko modua honako dekretu eta ebazpen hauetan arautu da: 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa; 72/2008 Dekretua, apirilaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrerari, antolaketari eta funtzionamenduari buruzkoa, eta azkenik 2006 otsailaren 9ko Ebazpena, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariarena, e-Administraziorako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– ezartzen duen dokumentua onartzen duena (2006ko martxoaren 3ko EHAA, 44. zk.).

3.– Izapideak bertatik bertara zein telematikoki aurkeztuz gero:

a) Laguntza-eskaerak agindu honen I. eranskinean argitaratutako ereduari lotu behar zaizkio eta justifikazioak III. eranskinean argitaratutako ereduari. Eskaerak eta horien dokumentazio osagarria (II. eranskina) zein justifikazioak eta horien dokumentazio osagarria (IV. eta V. eranskinak) Kultura Saileko Zerbitzu zuzendariari bidali behar zaizkio.

b) Erakunde eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez ditzakete laguntza-eskaerak eta justifikazioak eta haiei lotutako dokumentazioa. Orobat, laguntza-eskaeren eta justifikazioen aurkezpenaren ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarri den bezala.

c) Eskakizunak eta eskaturiko dokumentazioa egiaztatzeko modua, eskaera aurkezteko zein justifikazioa egiteko, VI. eta VII. eranskinetan argitaratzen diren jarraibideetan zein euskadi.net webguneko kultura-arloan eskuduna den egoitza elektronikoan zehaztuta dago.

d) Eskaeretan, aukera dago eskatzaileak berariazko baimena eman dezan dokumentazioaren zati bat laguntza kudeatzen duen organoak lortu edo egiaztatu dezan, herri-administrazioei dagozkien egiaztatze-, kontrol-, eta ikuskatze-eskumenak aparte utzi gabe.

e) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen 71 bis artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaera-formularioak zein, hala badagokio, justifikaziokoak biltzen duten zer egiaztagiri/dokumetazio ordeztu ahalko diren erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak izenpeturiko erantzukizunpeko adierazpen batekin, non ordezkariak bere erantzukizunpean adieraziko baitu diru-laguntza baliatzeko ezarritako eskakizunak betetzen dituela edo, kasuan kasu, esleituriko diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko, hori egiaztatzen duen dokumentazioa badaukala eta, eskaerari dagokionez, konpromisoa hartzen du beteko duela diru-laguntza baliatzeari dagokion denboraldian.

e.1.– Erantzukizunpeko adierazpenean berariaz eta modu argi eta zehatzean azaltzen dira eskakizunak.

e.2.– Erantzukizunpeko adierazpen bati eransten zaion datu, azalpen edo dokumenturen bat zuzena ez bada, edo faltsua bada, edo haietako bat falta bada, prozedura etengo da horren berri jakin bezain laster, gerta daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak aparte utzi gabe.

Gainera, gorago azaldutakoa adierazteko ematen duen ebazpenean Administrazio Publikoak ezarri ahal izango du interesdunak diru-laguntza itzuli behar duela, bidezkoa izanez gero.

4.– Eskaera aurkezteko bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeak ez du ekarriko berekin prozedurako hurrengo izapideetan ere nahitaez bitarteko horiek erabili behar izatea. Gainera, erakunde interesdunak jakinarazpenak bitarteko telematikoz egiteko emandako adostasuna baliogabetu ahal izango du; hori egin nahi izanez gero, organo eskudunari adierazi beharko dio eta aurrerantzean jakinarazpenak non jaso nahi dituen zehaztu beharko du, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz, hurrenez hurren.

6. artikulua.– Eskaera zuzentzea eta justifikazioari buruzko dokumentazio osagarria edota argigarria eskatzea.

1.– Eskaera:

a) Eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa aztertuta Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak eskaeraren izapidea onartzeko eskaturiko dokumentuak falta direla edo horietan akats formalak daudela ikusten badu, eta balioesteko alegaturiko dokumentazioan akatsak ikusten badira, erakunde interesdunari eskatuko zaio hamar egun balioduneko epean, izapidetze presentzialari zein telematikoari dagokionez, akatsa zuzendu edo dagozkion dokumentuak

aurkezteko, betiere adierazita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu duen urtarrilaren 13ko 4/1999 42.1 eta 71.1 artikuluei jarraikiz adierazitako epea igarota hori egiten ez badu, bere eskarian atzera egiten duela hartuko dela kontuan, organo eskudunaren aldez aurreko ebazpenaren ondoren.

b) Dena den, atzera egiteko esanbidezko ebazpena gehienez hilabeteko epean jakinaraziko da aurreko paragrafoan ezarritako hamar egun balioduneko epea amaitu eta biharamunetik hasita.

2.– Justifikazioa.

a) Justifikatzeko aurkezturiko dokumentazioaz aparteko dokumentazio osagarri edota argigarria eskatzen bada, Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzak dokumentazio hori igortzeko hamar egun balioduneko epea emango du, izapidetze presentzialerako zein telematikorako, dagokion jakinarazpenean adierazita lehen aipaturiko epe hori igaro eta dokumentazioa igortzen ez bada, erakundea uztailaren 13ko 200/2010 Dekretuak aldatu zuen irailaren 30eko 164/2008 Dekretuaren 15. artikuluak aipatzen dituen ez-betetzeetako batean eroriko litzatekeela.

a.1.– Hori gertatu dela egiaztatzen bada, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoaren arabera eta bertan agindutakoa bete ondoren, Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari ezin eskatu izango zaio ordaintzeko diru-laguntza, eta, behar den kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-kopuruak eta haien legezko korrituak.

a.2.– Aurreko paragrafoan adierazitako itzulketaz gainera, balizko zehapen-prozedura ireki daiteke ikusten bada Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren laguntza eta diru-laguntzei buruzko xedapenak urratu direla, lehen aipaturiko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

3.– Aurreko idatzi-zatietan adierazitako epea erakunde interesdunak dagokion jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

7. artikulua.– Jakinarazpenak egitea izapidetze presentzial eta telematikoan.

1.– Izapideak bertaratuta eginez gero, jakinarazpena erakunde interesdunak, edo haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak, posta zerbitzuaren hartu-agiria sinatzen denean egintzat joko da, eta kasu bakoitzean ezarritako epea jakinarazpeneko egintza jaso eta biharamunetik hasiko da zenbatzen.

2.– Izapidetze telematikoaren kasuan, aldiz, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 27.3 artikuluan xedaturikoari jarraikiz, baliozkoak izango dira, bitarteko elektronikoak erabiliz egindako komunikazioetan bi baldintza hauek betetzen badira: nonbaiten jasota geratzea komunikazioa bidali eta hartu izana, zein egunetan bidali eta hartu den, eta edukia bera, osorik; eta nork bidali duen eta norentzat den ere zuzen identifikatu beharko da.

Horretaz gain, administrazio elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30.2 artikuluan aipatutakoarekin jarraituz, jakinarazpen-sisteman, bi gauza hauek noiz gertatu diren egiaztatzeko modua egon behar du, data eta ordua jarrita: jakinarazi nahi den egintza noiz jarri den interesdunaren eskuetan; eta interesduna noiz sartu den edukira. Sartzen den momentutik aurrera pentsatuko da jakinarazpena eginda dagoela. Jakin baldin badakigu iritsi zaiola jakinarazpena, baina hamar egun natural geroago oraindik ez baldin bada edukira sartu, ulertuko dugu jakinarazpena ukatu egin duela. Izapidea eginda dagoela ulertuko da eta prozedurak aurrera jarraituko du, non eta ez den garbi geratzen, ofizioz edo interesdunak eskaturik, teknikoki ezinezkoa izan zaiola edukira sartzea.

8. artikulua.– Diru-laguntzaren likidazioa.

1.– Irizpideak.

a) Justifikazioko zenbatekoa eskaerarekin batera aurkeztutako gastu-aurrekontua baino gehiago izateak ez du emango eskubiderik hasieran onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa gehitzeko.

b) Diru-laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, emate-ebazpena aldatuko da, eta gauza bera gertatuko da estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin bat eginez gero, jasotako guztirako diru-kopurua diru-laguntzaren xede izan den jardueren kostua baino gehiago izanez gero ere. Halako kasuetan erakunde onuradunak jasotako diru-kopuruak itzuli beharko ditu.

b.1.– Emateko ebazpenen aldaketa posibleak modu proportzionalean egingo dira eta aurkeztutako eta behin betikoz egindako proiektuen azken kopuruari erantzungo diote, baita aurreikusitako eta azkenean egikarituriko egikaritzapen-aurrekontuari ere.

b.2.– Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren egikaritzapenean aldaketa partzialak izanez gero, itzuli beharreko diru-kopurua proportzionaltasun-printzipioaren arabera finkatuko da, eta hartan eragin handirik ez izatea kontuan hartuta eta erakunde onuradunek egiaztatuta konpromisoak gogobetetzera argi eta garbi bideraturiko jarduna nagusituko dela.

b.2.1.– Hori dela-eta, diru-laguntzaren xedea bete arren horretarako aurreikusitako egikaritzapen-aurrekontuaren eta benetan erabilitako diru-kopuruaren artean aldea gertatzen bada, honako hauek gertatu beharko dira diru-laguntzaren zenbatekoa ez txikitzeko:

b.2.1.1.– Egikaritzapenak eragindako gastuaren eta hasierako aurrekontuaren arteko aldea % 15 baino gehiago ez izatea.

b.2.1.2.– Behin betiko diru-laguntza ez izatea egikaritzapen-gastuaren % 70 baino gehiago.

b.2.1.3.– Gainfinantzaketarik ez gertatzea.

b.2.2.– Bestela, bidezko likidazioa egingo da eta emandako diru-laguntzatik bete ez den alderdiari dagokion zenbatekoa kenduko da.

2.– Prozedura.

Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, dena delako arrazoiarengatik bigarren zatiaren ordainketa gutxitu behar izatekotan edo hura ezeztatu behar izatekotan, eta, hala badagokio, jasotakoa, osorik nahiz haren zati bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar izanez gero, Kulturako sailburuak likidazio-ebazpen indibidualizatua emango du. Halaber, bidezkoa izanez gero, diru-itzulketa egin ahal izateko bi hilabeteko epea emango du ebazpenaren jakinarazpen-idazkia jasotzen denetik. Ebazpen honek administrazio-bidea agortu du, eta haren aurka honako bi errekurtsoak jar daitezke: hautazko berraztertzeko errekurtsoa ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazpenaren dataren biharamunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetan arautu ez diren alderdiei dagokienez, diru-laguntzen arloko gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onetsi

duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezarritakoari jarraituko zaio, eta prozedurari dagozkion gaietan Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean ezarritakoari.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, erakunde interesdunek berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko azaroaren 7a.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA ESKATZEKO INPRIMAKIA
Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN DATUAK

Erakundearen izena: .....IFZ: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea: .....Herria: ..... Probintzia : .....
Tel.: .....Sakelakoa: .....Fax: .....
Helbide elektronikoa (e-maila): .....
Web-orria: .....

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN LEGEZKO ORDEZKARITZAREN DATUAK

Pertsona fisikoa:
Izen-abizenak: .....NAN/AIZ: .....
Pertsona juridikoa:
Erakundearen izena: .....IFZ: .....
Datu komunak:
Tel.: ..... Sakelakoa: .....Fax: .....
Helbide elektronikoa (e-maila): .....

JAKINARAZPEN MODUA (markatu hautatua)

☐ Telematikoa ☐ Posta bidezkoa

Jakinarazpen telematikorako datuak:

Abisuaren datuak:

Mezu elektronikoa(k) [; erabilita bereiztu]: .....
.....
Telefono-mezua(k) [; erabilita bereiztu]: .....
.....

Postaz zein telematikoki jakinarazteko:

Helbidea: .....
Posta-kodea: .....Herria: ..... Probintzia : .....

JAKINARAZPENAREN HIZKUNTZA (markatu hautatua)

☐ Euskara ☐ Gaztelania

BANKU DATUAK

Bankua edo aurrezki-erakundea: __ __ __ __ (4 digitu)

Agentzia: __ __ __ __ (4 digitu)

KD (Kontrol digitua): __ __ (2 digitu)

Kontuaren zk.: __ __ __ __ __ __ __ __ __ __ (10 digitu)

Titularra: .....

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari naizenez, honako hau adierazten dut erakundearekiko, eta betiere nire erantzukizunpean:

A.- Generikoak:

1.- Erakundeak ez du jaso diru-laguntza eta laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez zigor-arlokorik, ez administrazio-bidekorik, eta ez dauka legez debekatuta halakorik eskuratzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak ere kontuan hartuta).

2.- Erakundeak egunean dauzka indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

3.- Erakundeak, lurralde-eremuari dagokionez, Agindu honen babespean aurkezten dituen programa edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan garatuko dira edo, horrela ez bada, bertatik kanpo, azken kasu honetan programen edo jardueren helburua euskal pentsamolde politiko eta sozial zein euskal kultura bere alderdi guztietan kanpoan zabaltzea izanik.

4.- Erakundearen fundazio-akta zein eraketa-eskritura eta estatutuak dagokion erregistro publikoan inskribatuta daude eskaera aurkeztu den egunean.

5.- Honako mota hauetakoak bazter uzten ditu erakundeak aurkezturiko gastu-aurrekontuak:

- Higiezinetan egindako denetariko obrek eragindakoak.
- Ekipamenduetan egindakoak —makineriaren, altzarien, informatika ekipoen, zein garraio-elementuen erosketa— eta, orokorki, erakunde onuradunaren ondarea gehitu duten bestelako gastu guztiak.
- Amortizazio-gastuak.
- Zergak eta tributu-gastuak.
- Diru-laguntza eskatu duen fundazio eta elkartearen zuzendaritzako kide diren irakasle, hizlari eta txostengileen ordainsari profesionalak.

6.- Batetik, erakundearen izenean aurkeztutako eskaerako datuak eta hari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira, bestetik, erakunde eskatzaileak indarrean den araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzkat hori frogatzen duten agiriak eta, azkenik, betekizun horiek diru-laguntzaren gozamenaldi osoan betetzeko konpromisoa onartzen dut.

B.- Berariazkoak (markatu «x» batez behar dena):

☐ **1.-** Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 35.f) artikuluarekin bat etorriz, erakundeak «Aurkeztu beharreko agiriak» ataleko (II. eranskina) 1., 2., 3. eta 4. puntuetan eskatzen diren agiriak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren esku daude, indarrean jarraitzen dute eta aurkeztuak izan ziren .... egunean (letrekin idatzia) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren ..... Sailaren (edo organikoki mendekoa) .... [e/a]n (Institutua/Erakunde Autonomoa/Zuzendaritza/Antzeko beste batzuk).

☐ **2.-** Ez du beste diru-laguntzarik eskatu eskaera aurkeztu den egunera arte, eta ez dauka aurreikusia laguntzarik eskatzea egun horren ondoren ere.

3.- EZ DAGO SARTUTA itzultzeko edo zehatzeko ezein prozeduratan .....☐,
SARTUTA DAGO itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren batean .....☐,
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari direlarik.

Oharra: Onuradunei diru-laguntzak eta laguntza eman eta, hala dagokionean, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi den eta oraindik izapidetze-fasean dagoen edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkari naizenez, erakundearen izenean eta nire erantzukizunpean adierazten dut honako konpromiso eta betebehar hauek hartzen dituela eman ahalko dioten laguntzarekiko:

1.- Hizkuntza sexistarik ez erabiltzea diru-laguntza jaso dezaketen programa edo jardueren garapenean eta egikaritzapenean eta, era berean, bermatzen du ez dela erabilera estereotipaturik izango emakume eta gizonen rolei dagokienez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedaturikoa betetzeko.

2.- Emandako diru-laguntza onartzea. Horren ildotik, diru-laguntza eman izanaren jakinarazpena jasotzen denetik zenbatu beharreko hamabost eguneko epealdian onuradunak diru-laguntzari berariaz eta idazki bidez uko egiten ez badio, onartutzat joko da.

3.- Diru-laguntzaren xede izan diren programak edo jarduerak egitea, ezarritako egikaritzapen- eta justifikazio-epeak betez, baita horiek egitearen ondorioz eratortzen diren alderdi guztiak betez ere.

4.- Emandako diru-laguntza programa edo jarduerak betetzetik eratorritako gastuak ordaintzeko erabiltzea, diru-laguntza emateko aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

5.- Egiaztapen-jardunak onartzea, eta Kultura Sailari, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen zertarakoaren fiskalizazio-eginkizunak betetzerakoan eskatzen zaien informazioa ematea.

6.- Diru-laguntza emateko eskatu eta kontuan izan diren betekizunetakoren bat eraginpean hartzen duen edozein egoera-aldaketaren berri ematea Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritzari.

7.- Zerbitzu Zuzendaritzari jakinaraztea, edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik xede bererako ematen duen diru-laguntza edo laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik jasoz gero.

8.- Diruz lagun daitekeen programa edo jarduera dela-eta lantzen diren sustapen-elementuetan eta testu edo dokumentuetan Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak emandako babesaren aipamena egitea. Babesaren aipamen horrek euskaraz beharko du izan edo, hala ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (Azken konpromiso horrek ez ditu eraginpean hartzen diru-laguntza emana izanaren jakinarazpena programa edo jarduera egin ondoren jaso izan duten erakunde onuradunak).

DOKUMENTUEN BALIDAZIO BAIMENDUAK (markatu «x» batez behar dena)

1.- Identifikazio-datuak (NAN edo AIZ):

☐ Erakundearen legezko ordezkari naizen heinean, baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

2.- Zerga-betebeharren ordainketa eguneratua izatea (egoitza fiskala Nafarroako Foru Erkidegotik kanpo duten erakundeentzat soil-soilik):

☐ Erakundearen legezko ordezkari naizen heinean, baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

3.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuta izatea:

☐ Erakundearen legezko ordezkari naizen heinean, baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

4.- Hirugarrenen alta:

☐ Erakundearen legezko ordezkari naizen heinean, baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko *Hirugarrenen Erregistroaren* bidez.

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskaera honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko «Zerbitzu Zuzendaritzaren diru-laguntzen kudeaketa» izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea, 1, Gasteiz - 01010.

Gainera, banku-datuak eta posta-komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n gordeko dira, eta Administrazio Publikoak laguntzak zuzen esleitzeko datuak erkatu ahal izango ditu eta beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

ADOSTASUNA

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria naizen aldetik, hauxe adierazten dut: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duen Kulturako sailburuaren 2012ko ------aren --ko Aginduaren I. eranskineko datuak eta horri erantsitako agirietakoak egiazkoak dira; erakunde eskatzaileak indarreko araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzkat hori frogatzen duten agiriak, eta diru-laguntza gozatzen duen aldi osoan betearazteko konpromisoa hartu dut.

....., 20….(e)ko .....aren ...(a)

Erakundearen edo ordezkaritza duen pertsonaren sinadura eta zigilua

II. ERANSKINA

ERAKUNDE ESKATZAILEARI BURUZKO ETA PROIEKTUAREN INGURUKO BESTE DATU BATZUK, ETA ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

HARREMANETARAKO PERTSONA

Izen-abizenak: .....

Tel.: .....Sakelakoa: .....Fax: .....

Helbide elektronikoa (e-maila): .....

PROGRAMAREN DESKRIBAPEN LABURRA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

PROIEKTUAREN GUZTIRAKO AURREKONTUA

GUZTIZKO GASTUAK: __ __ __ __ __ __ __

DIRU-SARRERAK:

Erakunde eskatzailearen ekarpena: __ __ __ __ __ __ __

Beste administrazio publiko batzuen ekarpenak: __ __ __ __ __ __ __

Erakunde pribatuen ekarpenak: __ __ __ __ __ __ __

Beste diru-sarrera batzuk: __ __ __ __ __ __ __

GUZTIZKO DIRU-SARRERAK: __ __ __ __ __ __ __

DEFIZITA: __ __ __ __ __ __ __

KULTURA SAILARI ESKATUTAKO KOPURUA: __ __ __ __ __ __ __

Finantziazio-indizea (% [Administrazioak bete beharrekoa])**:** ..... %

Autofinantzaketa-indizea (% [Administrazioak bete beharrekoa])**:** ..... %

Autofinantzaketa-indizearen balioa (Administrazioak bete beharrekoa)**:** ....

(Gogoan izan aurrekontua orekatu behar dela)

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (markatu «x» batez behar diren laukiak)

A.- ERAKUNDE ESKATZAILEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

☐ **1.-** Eskaeraren erakunde titularraren nortasun juridikoaren akreditazioa.

☐ **2.-** Eskaera sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren akreditazioa.

☐ **3.-** Pertsona fisikoaren nortasun-datuen akreditazioa (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (erakunde titularraz bestelakoa) zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanarena (ez da beharrezkoa izapidetze telematikoan).

☐ **4.-** Eskaeraren erakunde titularraren zerga-identifikazioko datuen (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) txartel egiaztagarria.

Oharra: Aurreko idatzi-zatietan aipaturiko dokumentazioa aurkeztu beharraz salbu daude kasuan kasuko ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren bidez (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) I. Eranskinaren 1 zenbakidun berariazko erantzukizunpeko adierazpena behar bezala bete eta hari dagokion laukia «x» batez markatu duten erakundeak.

☐ **5.-** Eskaeraren erakunde titularrek Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duen alderdi politiko batekiko mendekotasun organikoaren egiaztagiria, eta hura eskaturiko diru-laguntzaren hartzaile gisa hautatzea.

☐ **6.**- Erakundeak zerga-betebeharren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

☐ **7.**- Erakundeak Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

B.- AURKEZTURIKO PROIEKTUARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (hautaketa-irizpideak balioesteko edo aplikatzeko eskaturiko dokumentuak).

☐ **1.-** 2012ko ekitaldian garatu beharreko programari buruzko memoria.

☐ **2.**- Programaren edo jardueraren aurrekontua.

C.- PROGRAMAREN EDO JARDUERAREN EGIKARITZAPEN EGUTEGIA.

☐ **1.-** 2012ko ekitaldian garatu beharreko programari edo jarduerari buruzko egikaritzapen-egutegia.

D.- ORDAINKETAK LIBRATZEKO DOKUMENTAZIOA.

☐ **1.-** Datuen altako inprimakia/hirugarren interesduna edo dagokion banku-erakundeak (bankua edo aurrezki-kutxa) emandako ziurtagiria.

E.- BESTELAKO DOKUMENTAZIOA.

☐ **1.-** Nahi izanez gero, erakunde eskatzaileak diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako programa edo jarduera ondo balioesteko beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak aurkez daitezke.

Oharra: Zerbitzu Zuzendaritzak eta Balorazio Batzordeak programa edo jarduera baloratzeko beharrezkotzat jotzen dituzten datu eta agiri guztiak eskatu ahal izango dizkiote erakunde eskatzaileari.

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskaera honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko «Zerbitzu Zuzendaritzaren diru-laguntzen kudeaketa» izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea, 1, Gasteiz - 01010.

Gainera, banku-datuak eta posta-komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n gordeko dira, eta Administrazio Publikoak laguntzak zuzen esleitzeko datuak erkatu ahal izango ditu eta beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

ADOSTASUNA

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria naizen aldetik, hauxe adierazten dut: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duen Kulturako sailburuaren 2012ko -----aren --ko Aginduaren I. eranskineko datuak eta horri erantsitako agirietakoak egiazkoak dira; erakunde eskatzaileak indarreko araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzkat hori frogatzen duten agiriak, eta diru-laguntza gozatzen duen aldi osoan betearazteko konpromisoa hartu dut.

....., 20….(e)ko .....aren ...(a)

Erakundearen edo ordezkaritza duen pertsonaren sinadura eta zigilua

III. ERANSKINA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA JUSTIFIKATZEKO INPRIMAKIA

Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

ERAKUNDE ONURADUNA IDENTIFIKATZEKO DATUAK (TITULARRA)

Erakundearen izena: ..... IFZ: .....
Helbidea: .....
Posta-kodea: ..... Herria: ..... Probintzia : .....
Tel.: ..... Sakelakoa: ..... Fax: .....
Helbide elektronikoa (e-maila): .....
Web-orria: .....

ERAKUNDE ONURADUNAREN LEGEZKO ORDEZKARITZAREN DATUAK

Pertsona fisikoa:
Izen-abizenak: ..... NAN/AIZ: .....
Pertsona juridikoa:
Erakundearen izena: ..... IFZ: .....
.....
Datu komunak:
Tel.: ..... Sakelakoa: ..... Fax: .....
Helbide elektronikoa (e-maila): .....

DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN PROGRAMA

Esp. zk.: ..... __ __ __ __-__ __ __-__ __ __ __/__ __ __ __ __ __ __

PROGRAMAREN DESKRIBAPEN LABURRA

.....
.....
.....
.....
.....
.....

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Erakunde onuradunaren legezko ordezkari naizenez, honako hau adierazten dut erakundearekiko, eta betiere nire erantzukizunpean:

A.- Generikoak:

1.- Erakundeak egunean dauzka indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.

2.- Honako gastu mota hauek bazter uzten ditu erakundeak aurkezturiko egikaritzapeneko behin betiko aurrekontuak:

- Higiezinetan egindako denetariko obrek eragindakoak.
- Ekipamenduetan egindakoak (makineriaren, altzarien, informatika ekipoen, zein garraio-elementuen erosketa) eta, orokorki, erakunde onuradunaren ondarea gehitu duten bestelako gastu guztiak.
- Amortizazio-gastuak.
- Zergak eta tributu-gastuak.
- Diru-laguntza eskatu duen fundazio eta elkartearen zuzendaritzako kide diren irakasle, hizlari eta txostengileen ordainsari profesionalak.

Horrez gainera, adierazten dut protokolo-gastuak eta ordezkaritzako gastuak zuzenean lotuta daudela diru-laguntza jaso duen programarekin eta haien zenbatekoa ez dela diru-laguntzaren % 5 baino gehiago.

3.- Justifikazioan bildutako dokumentazio gisa jasotako egikaritzapeneko behin betiko aurrekontua (gastuak eta diru-sarrerak) egiaz uztartzen da diruz lagundutako programarekin.

4.- V. Eranskinaren zerrendarekin loturiko gastu guzti-guztiak diruz lagundutako programaren xedearekin uztartzen dira.

5.- Batetik, erakunde onuradunaren izenean aurkeztutako justifikazio-formularioko datuak eta hari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira, eta bestetik, erakunde onuradunak indarrean den araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzkat hori frogatzen duten agiriak.

B.- Berariazkoak (markatu «x» batez behar dena):

☐ **1.-** Emandako diru-laguntza justifikatzen duten egiaztagiriak aurkeztu den egunean erakunde titularraren legezko ordezkaritza izaten jarraitzen dut.

☐ **2.-** Erakunde onuradunak ez du jaso beste ezein administrazio edo erakunderen eskutik diru-laguntzarik, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren eskutik jasotako laguntza izan ezik, direla publikoak edo pribatuak, naziokoak edo nazioartekoak, programa hori egikaritzeko.

☐ **3-** Diruz lagundutako programan edo jardueran oinarrituta sorturiko material bakoitzaren hizkuntza-bertsioak, euskarri fisikoan, optikoan edota magnetikoan, gordailuan dauden erakunde onuradunaren egoitza sozialean eta laguntzen organo kudeatzailearen eskueran daude organo horrek eskatzen baditu, eta, era berean, material horietan aipatu egiten da Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesa, azken hori euskaraz agertzen delarik edo, hala ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialetan.

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskaera honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko «Zerbitzu Zuzendaritzaren diru-laguntzen kudeaketa» izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea, 1, Gasteiz - 01010.

Gainera, banku-datuak eta posta-komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n gordeko dira, eta Administrazio Publikoak laguntzak zuzen esleitzeko datuak erkatu ahal izango ditu eta beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

ADOSTASUNA

Erakunde onuradunaren legezko ordezkaria naizen aldetik, hauxe adierazten dut: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duen Kulturako sailburuaren 2012ko -----aren --ko Aginduaren III. eranskineko datuak eta berari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira; erakunde onuradunak indarrean den araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzka hori frogatzen duten agiriak.

..... , 20.....(e)ko ....aren ...(a)

Erakundearen edo ordezkaritza duen pertsonaren sinadura eta zigilua

IV. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN PROIEKTUAREN INGURUKO BESTE DATU BATZUK ETA HAREN JUSTIFIKAZIO INPRIMAKIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN PROIEKTUAREN BEHIN BETIKO AURREKONTU OROKORRA

GUZTIZKO GASTUAK: .....__ __ __ __ __ __ __

DIRU-SARRERAK:

Erakunde eskatzailearen ekarpena: .....__ __ __ __ __ __ __

Erakunde eskatzailearen aparteko ekarpena, halakorik izanez gero: .....__ __ __ __ __ __ __

Kultura Sailak emandako diru-laguntza: .....__ __ __ __ __ __ __

Beste administrazio publiko batzuen ekarpenak: .....__ __ __ __ __ __ __

Erakunde pribatuen ekarpenak: .....__ __ __ __ __ __ __

Beste diru-sarrera batzuk: .....__ __ __ __ __ __ __

GUZTIZKO DIRU-SARRERAK: .....__ __ __ __ __ __ __

(Gogoan izan aurrekontua orekatu behar dela)

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA (markatu «x» batez behar diren laukiak)

ENTITATE ESKATZAILEAREN DOKUMENTAZIOA:

☐ **1.-** Justifikazio-inprimakia sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (laguntzaren erakunde onuradunaz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren akreditazioa.

☐ **2.-** Pertsona fisikoaren nortasun-datuen akreditazioa (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (laguntzaren erakunde onuradunaz bestelakoa) zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde onuradunaren legezko ordezkaritza daukanarena.

Oharra: Aurreko bi puntuetan adierazitako dokumentazioa kasu honetan soilik aurkeztu behar da: diru-laguntzaren eskaera aurkeztu denetik justifikazioa aurkeztu arteko aldian erakundearen legezko ordezkaritza aldatuz gero.

DIRU-LAGUNTZA JASO DUEN JARDUERAREN EDO PROIEKTUAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA.

☐ **1.-** Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria.

☐ **2.-** Diru-laguntza jaso duen programaren edo jardueraren egikaritzapenaren behin betiko aurrekontua (gastuak eta sarrerak); kopuruak ahalik eta xehatuen eman behar dira.

☐ **3.**- Diru-laguntza jaso duen programa edo jarduera egikaritzeko egindako gastu guztien zerrenda (eredua V. eranskinean).

☐ **4.-** Diruz lagundutako programa edo jarduera egitearen ondorioz sorturiko gastuen frogagiriak, kasu bakoitzeko hirugarren interesdunaren aldeko ordainketaren librantza egin izana egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

☐ **5.-** Diruz lagundutako programan edo jardueran oinarrituta sorturiko material bakoitzaren hizkuntza-bertsioen bi ale, euskarri fisiko/optiko/magnetikoan.

☐ **6.-** Bigarren ordainketa hurrengo ekitaldian egingo denez, erakunde onuraduna zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketan egunean dagoela jasotzen duen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.

IZAERA PERTSONALEKO DATUAK BABESTEA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (DBLO) esaten dena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak jakinarazten dizu eskaera honetan adierazi dituzun datuak bere titulartasuneko «Zerbitzu Zuzendaritzaren diru-laguntzen kudeaketa» izeneko fitxategian gordeko direla. Fitxategia laguntza espedienteak kudeatzeko erabiliko da, Datuak Babesteko Euskal Agentziari jakinarazi ondoren. Fitxategiak segurtasun-neurri egokiak dauzka datuen segurtasuna bermatzeko. Legezko kasuetan izan ezik, datuok ez zaizkie emango hirugarrenei. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko arautegiaren arabera, zeure datuak ikusteko, ezabatzeko, zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, berariaz onartuta baitago DBLOan, eta horretarako Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara jo behar duzu: Donostia kalea, 1, Gasteiz - 01010.

Gainera, banku-datuak eta posta-komunikazioetarako datuak Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n gordeko dira, eta Administrazio Publikoak laguntzak zuzen esleitzeko datuak erkatu ahal izango ditu eta beharrezko egiaztapenak egin ahal izango ditu.

ADOSTASUNA

Erakunde eskatzailearen legezko ordezkaria naizen aldetik, hauxe adierazten dut: Eusko Legebiltzarrean ordezkatuta dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako 2012ko diru-laguntzetara biltzeko dei egiten duen Kultura sailburuaren 2012ko -----aren --ko Aginduaren IV. eranskineko datuak eta berari erantsitako agirietakoak egiazkoak dira; erakunde eskatzaileak indarreko araudian diru-laguntza jasotzeko ezarritako betekizun guztiak betetzen ditu eta badauzkat hori frogatzen duten agiriak; diru-laguntza gozatzen duen aldi osoan betearazteko konpromisoa hartu dut.

..... , 20.....(e)ko ....aren ....(a)

Erakundearen edo ordezkaritza duen pertsonaren sinadura eta zigilua

V. ERANSKINA

EGINDAKO GASTUEN GUZTIZKOAREN ZERRENDA (1 eta2)

Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

A: Ordena-zenbaki korrelatiboa (3).
B: Mota (4).
C: Identifikazio-zenbakia.
D: Data.
E: Igorlea.
F: Azalpena, argibidea eta gastuaren zertarakoa.
G: Zenbatekoa (BEZa barne, hala badagokio).

A	B	C	D	E	F	G
					GUZTIRA	

Oharrak

(1): Behar den beste lauki bete.
(2): Lerro gehiago behar izanez gero, jarraitu beste orri batean/batzuetan eredu hau gida bezala erabilita (erosoagoa izateko, euskadi.net webgunearen Kulturako atalean ageri den «pdf» dokumentu betegarria erabil daiteke, laguntzen deialdi honi buruzkoa).
(3): Adierazi egiaztagiri bakoitzerako dagokion ordena-zenbaki korrelatiboa.
(4): **4.a.-** Nomina. **4.b.-** Banku-zorpetzeen ziurtagiriak edo kargu-agiriak, finantza erakundeek emanak, fakturen ohiko datuak dituztenak, zenbakia eta seriea izan ezik. **4.c.-** Banku-txekearen kopia. **4.d.-** Faktura. **4.e.-** Autofaktura (indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan). **4.f.-** Hirugarren interesdunak sinatutako hartu-agiria. **4.g.-** Tiketa. **4.h**.- Eskuan ordaindua. **4.i.-** Beste batzuk (zehaztu).

VI. ERANSKINA

IZAPIDETZE PRESENTZIALEAN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

Prozedura: Alderdi politikoen fundazioak (12/13)

Bide presentzialeko izapidea hasteak ez du bide beretik jarraitzera behartzen, eta bi kasuetan aurkeztu beharreko eskaera-/justifikazio-formularioa zein dokumentazioa paperezko euskarrian edota formatu digitalean aurkez badaitezke ere, kasu guztietan ere paperezko euskarria erabiltzea gomendatzen da, e-Administrazio plataformatik kanpo sinadura elektronikoa baliozkotzeak dakarren konplexutasuna dela-eta.

Dena dela, diru-laguntza eskatzaileek formatu digitaleko kopien sinadura elektronikoari buruzko eragiketen esparruan gauzak errazte aldera, https://www6.euskadi.net/s06-15530x/eu/r02fHorizontalSignatureSystemWar/R02FIndex.jsp ≡ http://tinyurl.com/3qhzj4u helbidean sar daitezke (klik egin «Dokumentua sinatu» atalean eta jarraitu argibideei. Bi dokumentu erantsi beharko dira: bat, dokumentu eskaneatua eta, bestea, sinadura elektronikoaren kodifikazioa biltzen duen dokumentua. Ondoren, sinaturiko dokumentua egiaztatuko du Administrazioak).

Onarturiko ziurtagiri elektronikoen zerrenda, identifikazio eta sinadurarako, izapidetze elektronikoan euskadi.net webgunearen bidez (aurrerantzean, «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net») honako helbide honetan kontsulta daiteke: http://www.euskadi.net/r33-2287/eu/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html ≡ http://tinyurl.com/3e4tb4k.

Azkenik, azpimarratu behar da «Nire Gestioak» atalaren bidez (euskadi.net webgunearen orri nagusiaren ezkerreko markoan dagoen «banderatxoa» edo «bannerra») plataforma elektronikora edozein dokumentu aurkezteko dokumentu hori «a posteriori» elektronikoki sinatu beharrekoa dela (sistemaren eskakizuna) «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozein baliatuta, beti ere agiriaren titulartasuna eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanari egokituko zaiolarik.

A.- ESKAERA

1.- I. eta II. eranskinak (laguntza-eskaerako inprimakia, eta erakunde eskatzaileari, proiektuari eta eskaera-inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko beste datu batzuk, hurrenez hurren):

Biak ere nahitaez aurkeztekoak dira. Honela aurkez daitezke:

a) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa, eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukan pertsona fisiko edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) sinaturikoa.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa eta elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak TE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinen bidez eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren eskutik (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa). Arestian esan bezala, Administrazioa arduratuko da elektronikoki sinaturiko dokumentuaren baliozkotasuna egiaztatzeaz.

2.- Eskaeraren erakunde titularrari buruzko dokumentazioa:

2.1.- Eskaeraren erakunde titularraren nortasun juridikoaren akreditazioa:

Honako dokumentazio hau aurkeztuta egiaztatuko da nortasun juridikoa:

a) Fundazio-akta (ez da ezinbestekoa).

b) Indarrean dagoen eratze-eskritura (hasierakoarena gehi ondorengo aldaketa posibleena, aldatua izan bada).

c) Erakundearen barne-funtzionamendua ezartzen duten eguneraturiko estatutuak.

d) Dagokion erregistro publikoan inskribatu izanaren egiaztagiria (EHAAren kopiaren bidez edo inskripzioa publiko egiten duen beste baten bidez edo dagokion erregistroak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez).

Honela aurkeztu ahalko dira adierazitako dokumentuak:

a) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea, edo, halakorik ezean, jatorrizko, sinaturiko eta zigilaturiko ziurtagiria denean.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa. Dokumentuetako bat prozeduraz bestelako hirugarren pertsona batek sinatuta badago, 1. idatzi-zatiak ezarritakoari jarraiki sinatu beharko da dokumentu hori.

2.2.-Eskaera sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren akreditazioa.

Eskaeraren sinatzailea pertsona fisiko bat denean soil-soilik aurkeztu beharko da edo, kasuan kasu, eskaeraren erakunde titularraz bestelako pertsona juridiko bat denean.

Egiaztagiri hori ahalordetzeko notario-eskrituraren kopia bidez egin ahalko da edo eskaeraren erakunde titularraren idazkariak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Egiaztagiria/k 2.1 idatzi-zatian bildutakoak bezalaxe aurkeztu ahalko dira.

2.3.- Pertsona fisikoaren nortasun-datuen akreditazioa (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (laguntzaren erakunde titularraz bestelakoa) zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanarena.

NANa edo AIZ aurkeztea, kasuan kasu, beharrezkoa izango da soil-soilik erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsonak baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera-formularioan nortasun-datuak eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

NANa edo IFZ honela aurkeztu ahalko dira:

a) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa.

Pertsona juridikoaren IFZ (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) kasu guztietan ere izango da beharrezkoa.

NANa edo AIZ bezalaxe aurkeztu ahalko da IFZ.

2.4.- Eskaeraren erakunde titularraren zerga-identifikazioko datuen (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) txartel egiaztagarria.

Eskaeraren erakunde titularraren helbide fiskala Nafarroako Foru Erkidegoan dagoenean soil-soilik aurkeztu beharko da.

Kasu horretan, 2.3 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkeztu ahalko da IFZ.

Oharra: Aurreko 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 idatzi-zatietan aipaturiko dokumentazioa aurkeztu beharraz salbu daude kasuan kasuko erakundearen ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren bidez (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) I. eranskinaren 1 zenbakidun berariazko erantzukizunpeko adierazpena behar bezala bete eta hari dagokion laukia «x» batez markatu duten erakundeak.

2.5.- Eskaeraren erakunde titularrak Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duen alderdi politiko batekiko mendetasun organikoaren akreditazioa, eta hura eskaturiko diru-laguntzaren hartzaile gisa hautatzea.

Akreditazioa kasu bakoitzean Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duen alderdi politikoaren legezko ordezkaritza duen pertsona fisikoak emandako ziurtagiri bidez egingo da.

Ziurtagiria honela aurkeztu ahalko da:

a) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa eta alderdi politikoaren legezko ordezkaritza daukan pertsona fisikoak elektronikoki sinaturikoa (1. idatzi-zatian azaldutakoa bezalaxe).

2.6.- Erakundeak zerga-betebeharren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

Aurkeztuko da soil-soilik erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera-formularioan zerga-betebeharren eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez edo eskaeraren erakunde titularrak helbide fiskala Nafarroako Foru Erkidegoan duenean. Bi kasuetan ere, dagokion foru-ogasunak edo Zerga Agentziak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta 2.3 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkeztu ahalko da.

Formatu digitalean aurkeztuz gero, azpimarratzekoa da Nafarroako Foru Erkidegoaren Foru Ogasunak edo kasu bakoitzean dagokion Zerga Agentziak on-line zerbitzu hori badu, ziurtagiria zuzenean jaitsi daitekeela formatu digitalean elektronikoki sinaturiko dokumentu gisa.

Kasuan kasuko erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) esanbidezko baimena eman dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari, azkeneko hau izango da egiaztapena gauzatuko duena.

2.7.- Erakundeak Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

Aurkeztuko da soil-soilik erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera-formularioan Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez. Kasu honetan, Asegurantza Sozialak luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta ogasunarena bezalaxe aurkeztu ahalko da.

Euskarri elektronikoan aurkeztuz gero, azpimarratzekoa da Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikotik (http://www.seg-social.es/Internet_1/Masinformacion/Preguntasmasfrecuen37888/Cotizacionyrecaudac48432/Cotizacionyrecaudac48433/index.htm#48431 ≡ http://tinyurl.com/3lrfruj) zenbait ziurtapen-zerbitzu balia daitezkeela.

Kasuan kasuko erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) esanbidezko baimena eman dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari, azkeneko hau izango da egiaztapena gauzatuko duena.

3.- Diruz lagundua izateko aurkezturiko programa edo jarduerari buruzko dokumentazioa:

3.1.- 2012ko ekitaldian garatu beharreko programari buruzko memoria:

Memoriak albait xehatuena izan behar du, eta honako alderdi hauek aipatu behar ditu gutxienez:
a) Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegitik zein kulturalarenetik programak duen interesa (arrazoitu).

b) Erakundearen ibilbidea, gizarte-ezarpena eta hizkuntza-politika (arrazoitu).

c) Programaren edo jardueraren balizko zuzeneko onuradunen unibertsoa (arrazoitu).

d) Programaren edo jardueraren lurralde-eragina (arrazoitu).

e) Web-orriaren ezaugarriak (horrelakorik badago): Norentzat den (haren xede diren pertsonak edo kolektiboak), edukien egitura eta horiek eguneratzea, zerbitzuak eta horien doakotasuna eta, azkenik, erabilitako hizkuntzak.

2.3 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkez daiteke.

3.2.- Programaren edo jardueraren aurrekontua.

a) Aurrekontua banandu eta xehatu egin behar da, aurrekontua bera egikaritzearekin zuzenean loturiko funtzionamendu-gastuak ere bilduta, halakorik balego.

b) Aurrekontuak orekatua behar du, hau da, gastuek eta diru-sarrerek kopuru berekoak izan behar dute, diru-sarreren atalean honako datu hauek zehaztuta:

b.1) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila kanpoan utzita, xede bererako diru-laguntza eskatu zaien (edo eskatzeko asmo dagoen) estatuko zein nazioarteko administrazio eta erakunde publiko zein pribatuen zerrenda zehatza.

b.2) Zerrendako administrazio edo erakunde bakoitzari eskatutako diru-kopurua, edo eskatuko zaiona.

b.3) Eskaeren egoera (eskatzeko asmoa, ebazpenaren zain, diru-laguntza emanda, etab.).

b.4) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

Aurrekontua honela aurkez daiteke:

a) Paperezko euskarrian: Pertsona fisiko edo juridikoak izenpeturiko jatorrizkoa (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa).

b) Formatu digitalean: 2.5 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe.

4.- Programa edo jarduera egikaritzeko egutegia.

Ahal den neurrian, kronograma baten bidez azaltzeko eskatzen da.

2.3 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkez daiteke.

5.- Ordainketak egiteko agiriak

Ebazpena aldekoa denean Administrazioak ordainketak egin ahal izateko, beharrezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren «Hirugarrenen erregistroa» izeneko datu-basean ordainketak egiteko behar diren datuak erregistratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorraren irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan araututakoaren arabera. Horretarako, bi aukera daude:

a) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia, honako helbide honetatik balia daitekeena: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/eu/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/alta%20de%20TERCERO.pdf ≡ http://tinyurl.com/3fj4lfy.

b) Aurrezki-libretaren edo kontu korrontearen libretaren kopia, edo banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-erakundeak) emandako edota ziurtatutako dokumentuarena; bertan honako datu hauek agertu behar dira gutxienez:

b.1) Banku-erakundearen izena.

b.2) Banku-erakundearen helbidea.

b.3) Kontuaren zenbakia (20 digitu).

b.4) Kontuaren titularra, eta hirugarren interesduna bera izango da.

Kasu honetan soilik aurkeztu behar da: erakunde eskatzailea ez badago alta emanda Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketan egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n eta azken hiru urteetan ez badu egin eragiketarik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin edo hirugarrenen erregistroan badagoen banku-datu edo helbideratze-daturen bat aldatu nahi badu.

2.3 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkez daiteke inprimakia edo frogagiria.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Diruzaintza Nagusiak egiten duen diru-sarrera jakinarazpeneko posta-helbidea, hala badagokio, izango da eskaera-inprimakiaren «Posta-jakinarazpeneko datuak» gunean ageri dena.

6.- Bestelako dokumentazioa:

Borondatez erantsi ahalko da aurkezturiko programa edo jarduera hobeto balioesteko eskaeraren erakunde titularrak egoki irizten dion beste edozein dokumentazio, paperezko euskarrian (kopia sinplea edo jatorrizkoa, dokumentu motaren arabera) zein formatu digitalean (kopia eskaneatua «pdf» formatuan [«Adobe Acrobat»]), 5.0-tik gorako bertsioa, sinatu gabe, edo, dokumentu motaren arabera elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak TE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinen bidez eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren eskutik (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa).

Oharra: Dena den, laguntza-programaren organo kudeatzaileak (Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza) edota Balorazio Batzordeak eskaeraren erakunde titularrari eskatu ahalko diote beharrezko iritzitako informazio eta dokumentazio guztia aurkezturiko programa edo jarduera hobeto balioesteko.

B.- JUSTIFIKAZIOA

1.- III. eta IV. eranskinak (emandako laguntzaren justifikazio-inprimakia eta diruz lagundutako proiektuari buruzko beste datu batzuk eta emandako laguntzaren justifikazio-inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, hurrenez hurren):

Biak ere nahitaez aurkeztekoak dira. Honela aurkez daitezke:

a) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa, erakunde onuradunaren legezko ordezkaritza daukan pertsona fisiko edo juridikoak (erakunde onuradunaz bestelakoa) sinaturikoa.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0.-tik gorako bertsioa eta elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak TE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinen bidez erakunde onuradunaren legezko ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren eskutik (erakunde onuradunaz bestelakoa). Arestian esan bezala, Administrazioa arduratuko da elektronikoki sinaturiko dokumentuaren baliozkotasuna egiaztatzeaz.

2.- Erakunde eskatzailearen dokumentazioa:

Hurrengo bi puntuetan (2.1 eta 2.2) adierazitako dokumentazioa kasu honetan soilik aurkeztu behar da: diru-laguntzaren eskaera aurkeztu denetik justifikazioa aurkeztu arteko aldian erakundearen legezko ordezkaritza aldatuz gero).

2.1.- ustifikazio-inprimakia sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (erakunde onuradunaz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren egiaztagiria.

Justifikazio-inprimakiaren sinatzailea pertsona fisiko bat denean soil-soilik aurkeztu beharko da edo, kasuan kasu, erakunde onuradunaz bestelako pertsona juridiko bat denean.

Egiaztagiri hori ahalordetzeko notario-eskrituraren kopia bidez egin ahalko da edo erakunde onuradunaren idazkariak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Honela aurkeztuko dira egiaztagiria/k:

a) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea, edo, halakorik ezean, jatorrizkoa, sinaturiko eta zigilaturiko ziurtagiria denean.

b) Formatu digitalean: Justifikazioaren 1. idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe.

2.2.- Pertsona fisikoaren nortasun-datuen egiaztagiria (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (erakunde onuradunaz bestelakoa)

zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde onuradunaren legezko ordezkaritza daukanarena.

NANa edo AIZ aurkeztea, kasuan kasu, beharrezkoa izango da soil-soilik erakunde onuradunaren legezko ordezkari den pertsonak baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera formularioan nortasun-datuak eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

NANa edo IFZ honela aurkeztu ahalko dira:

a) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea.

b) Formatu digitalean: Kopia eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa.

Pertsona juridikoaren IFZ aurkeztea (erakunde onuradunaz bestelakoa) kasu guztietan ere izango da beharrezkoa.

NANa edo AIZ bezalaxe aurkeztu ahalko da IFZ.

2.3.- Diru-laguntza jaso duen programari edo jarduerari buruzko memoria, ahalik eta zehatzena, haren egikaritzapena, betetze-maila eta ebaluazioa azaltzen dituena.

Justifikazioaren 2.2 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkez daiteke.

2.4.- Diru-laguntza jaso duen programaren edo jardueraren egikaritzapenaren behin betiko aurrekontua (gastuak eta sarrerak); kopuruak ahalik eta xehatuen eman behar dira.

Aurrekontuak orekatua behar du, hau da, gastuek eta diru-sarrerek kopuru berekoak izan behar dute; diru-sarreren atalean honako datu hauek zehaztu behar dira, besteak beste:

a) Erakunde onuradunaren hasierako ekarpena.

b) Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek xede bererako emandako diru-ekarpenak.

c) Kultura Sailak emandako diru-laguntza.

d) Beharrezkoa izanez gero, erakunde onuradunak aurrekontu-oreka lortzeko jarri behar izan duen diru-kopuru gehigarria; kopuru hori erakunde onuradunak metatutako defizita izango da ondorio guztietarako.
Egikaritzapeneko behin betiko aurrekontua justifikazioaren 1. idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkeztu ahalko da.

2.5.- Diru-laguntza jaso duen programa edo jarduera egikaritzeko egindako gastu guztien zerrenda (eredua V. eranskinean).

Eskatzaileentzat erosoagoa izan dadin, «pdf» dokumentua erabil dezakete, betegarria eta inprimagarria, honako helbide honetan ageri den deialdiaren bidez balia daitekeena: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-797x/eu?r01kQry=tC%3Aeuskadi%3BtF%3Aprocedimientos_administrativos%3BtT%3Aayuda_subvencion%3Bm%3AdocumentLanguage.EQ.eu%3BcA%3Ar01e00000fe4e66771ba470b8101d0b01550f37ed%3Bp%3AInter_portal%2CInter%3B ≡ http://tinyurl.com/429qlqt .

Salbuespen gisa, diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztutako hasierako gastu-aurrekontua 100.000,00 eurotik gorakoa izanez gero, aurkezten den zerrendako gastuen guztirako zenbatekoak aurreko diru-kopuruaren baliokide izan behar du.

Justifikazioaren 2.2 idatzi-zatiko dokumentuak bezalaxe aurkez daiteke zerrenda.

2.6.- Diruz lagundutako programa edo jarduera egitearen ondorioz sorturiko honako gastu horien frogagiriak, kasu bakoitzeko hirugarren interesdunaren aldeko ordainketaren librantza egin izana egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera:

a) Diru-laguntzaren eskaerarekin batera hasieran aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 50 baino gehiago Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kargura finantzatzen bada, gastu-aurrekontuaren guztirako zenbatekoa.

b) Aparteko kasuetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kargura diru-laguntzaren eskaerarekin batera hasieran aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 50 edo gutxiago finantzatzen bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Eskuarki, nominak eta fakturak edo ordainagiriak hartzen dira gastu-frogagiritzat. Baliozkoak izateko, enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta eman beharra arautzen duen indarreko zerga-araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte horiek guztiek.

b.1).- Gastu-frogagiriak aurkezteko moduari dagokionez, jatorrizkoak soilik onartuko dira; hala ere, besterik eduki ezean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo kasuan kasuko Lurralde Historikoko Kulturako Lurralde Zerbitzuak konpultsatutako fotokopiak aurkez daitezke.

b.2) Aurkezturiko jatorrizko frogagiriak zigilu edo zigilu-marka batekin markatu dira, bertan adierazita faktura edo baliokidea Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari emandako diru-laguntza justifikatzeko baliagarri izan dela.

b.2.1) Egokia bada edo erakunde onuradunak hori eskatuta, eginbide bat gauzatuko da, bertan adierazita frogagiri batena edo bat baino gehiagorena diru-laguntzari egozten zaion osorik edo partzialki. Zati bat bakarrik egozten bazaio, kopurua zehaztu behar da.

Honela aurkeztu ahalko dira frogagiriak:

a) Paperezko euskarrian: Jatorrizko edo fotokopia konpultsatua, aurretik hari zigilu-marka ezarrita.

b) Formatu digitalean: Kopia konpultsatua, aurretik jatorrizkoari zigilu-marka jarrita, eta eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa.

2.7.- Diruz lagundutako programan edo jardueran oinarrituta sorturiko material bakoitzaren hizkuntza-bertsio guztien bi ale, euskarri fisiko/optiko/magnetikoan, horietan aipamena eginez Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesari, eta aipamen horrek euskaraz behar du edo, horrela ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (aurkezteko modua erabakitzeko garaian, erakundea harremanetan jarri ahalko da laguntzen Organo Kudeatzailearekin, hala nahi izanez gero).

Adierazitako material horiek aurkeztu beharko dira soilik erakunde onuradunak edo, kasuan kasu, hura ordezkatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak III. eranskinean aipatzen diren berariazko erantzukizunpeko adierazpenen arteko azkena egin ez badu.

2.8.- 2. ordainketa 2013an egingo denez, eskaeraren erakunde titularra zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da (ikus eskaerari buruzko 2.6 eta 2.7 idatzi-zatiak).

VII. ERANSKINA

IZAPIDETZE TELEMATIKOAN DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK
(ELEKTRONIKOA EDO ON-LINE MODUKOA)

Prozedura: Alderdi politikoen mendeko fundazioak (12/13)

Izapidea bide telematikotik hasteak bide horretatik jarraitzera behartzen ez badu ere, gomendatzen da, ahal den neurrian, dokumentazioaren ekarpena formatu digitala erabiliz egitea, aurkezturiko dokumentazio horrek Administrazioari igorritako informazioa antolatzeko eta biltegiratzeko unitate bat atxiki dezan.

Dena dela, diru-laguntza eskatzaileek formatu digitaleko kopien sinadura elektronikoari buruzko eragiketen esparruan gauzak errazte aldera, https://www6.euskadi.net/s06-15530x/eu/r02fHorizontalSignatureSystemWar/R02FIndex.jsp ≡ http://tinyurl.com/3qhzj4u helbidean sar daitezke (klik egin «Sinatu dokumentu » atalean eta jarraitu argibideei. Bi dokumentu erantsi beharko dira: bat, dokumentu eskaneatua eta, bestea, sinadura elektronikoaren kodifikazioa biltzen duen dokumentua. Ondoren, sinaturiko dokumentua egiaztatuko du Administrazioak).

Onarturiko ziurtagiri elektronikoen zerrenda, identifikazio eta sinadurarako, izapidetze elektronikoan euskadi.net webgunearen bidez (aurrerantzean, «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net») honako helbide honetan kontsulta daiteke: http://www.euskadi.net/r33-2287/eu/contenidos/informacion/certificados_admitidos/es_cert_ele/certificados_electronicos.html ≡ http://tinyurl.com/3e4tb4k.

Azkenik, azpimarratu behar da «Nire Gestioak» atalaren bidez (euskadi.net webgunearen orri nagusiaren ezkerreko markoan dagoen «banderatxoa» edo «bannerra») plataforma elektronikora edozein dokumentu aurkezteko dokumentu hori «a posteriori» elektronikoki sinatu beharrekoa dela (sistemaren eskakizuna) «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozein erabilita, beti ere agiriaren titulartasuna eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanari egokituko zaiolarik.

A.- ESKAERA

1.- I. eta II. eranskinak (laguntza-eskaerako inprimakia, eta erakunde eskatzaileari, proiektuari eta eskaera-inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzko beste datu batzuk, hurrenez hurren):

Biak nahitaez aurkeztekoak dira eta, logikoki, izapidetze telematikoa denez (on-line modukoa), formatu digitalean soilik aurkez daiteke, izapide elektronikoa baliatzeko (on-line modukoa) ageri diren formularioak beteta, aldez aurretik «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinen bidez identifikatuta.

2.- Eskaeraren erakunde titularrari buruzko dokumentazioa:

2.1.- Eskaeraren erakunde titularraren nortasun juridikoaren akreditazioa:

Honako dokumentazio hau aurkeztuta egiaztatuko da nortasun juridikoa:

a) Fundazio-akta (ez da ezinbestekoa).

b) Indarrean dagoen eratze-eskritura (hasierakoarena gehi ondorengo aldaketa posibleena, aldatua izan bada).

c) Erakundearen barne-funtzionamendua ezartzen duten eguneraturiko estatutuak.

d) Dagokion erregistro publikoan inskribatu izanaren egiaztagiria (EHAAren kopiaren bidez edo inskripzioa publiko egiten duen beste baten bidez edo dagokion erregistroak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez).

Honela aurkeztu ahalko dira adierazitako dokumentuak:

a) 1. formatu digitalean (aurkezpena formularioarenarekin batera): Kopia [baterakoa (a + b + c + d + … + z)] eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa, «Microsoft word» edo «excell» formatuetan, 2007ren pareko edo beheragoko bertsioa, edo beste formatu edo bertsio batzuk, betiere bateragarriak badira Ekonomia eta Ogasun Sailaren Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak

finkaturiko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren estandarrekin (aurrerantzean, «Formatu Estandarrak-FE») eta telematikoki (on-line moduan) bete beharreko eskaera-formularioari (II. eranskina) erantsitakoa.

b) 2. formatu digitalean («a posteriori» aurkezpena «Nire Gestioak» atalaren bidez): Kopia {kasuan kasu, baterakoa (a + b + c + d + … + z) edo banakakoa [(a) + (b) + (c) + (d) + (…) + (z)]} eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa, «Microsoft word» edo «excell» formatuetan, 2007ren pareko edo beheragoko bertsioa edo «FE» formatuetako edozeinetan eta elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinekin, haren titulartasuna eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanari dagokiolarik.

c) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea, edo, halakorik ezean, jatorrizkoa, sinaturiko eta zigilaturiko ziurtagiria denean.

2.2.- Eskaera sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren akreditazioa.

Aurkeztu beharko da soilik eskaera-formularioa (I. eta II. eranskinak) herritar-ziurtagiria, eta ez erakunde-ziurtagiria, daukan pertsona fisiko batek elektronikoki sinatzen duenean.

Egiaztagiri hori ahalordetzeko notario-eskrituraren kopia bidez egin ahalko da edo eskaeraren erakunde titularraren idazkariak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Egiaztagiria/k 2.1 idatzi-zatian bildutako dokumentuak bezalaxe aurkeztu ahalko dira.

2.3.- Pertsona fisikoaren nortasun-datuen egiaztagiria (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (laguntzaren erakunde titularraz bestelakoa) zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanarena.

Izapidetze telematikoan (on-line modukoan) ez da beharrezkoa egiaztagiri hori, frogatzeko modua jasota baitago eskaera-formularioaren sinadura elektronikoan.

2.4.- Eskaeraren erakunde titularraren zerga-identifikazioko datuen (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia) txartel egiaztagarria.

Ez da nahitaez aurkeztekoa izango eskaera-formularioa (I. eta II. eranskinak) elektronikoki sinatua izan bada erakunde-ziurtagiriarekin, azken hori izanik eskaeraren erakunde titularra, haren legezko ordezkaritzako ahalmena baitauka. Horrela ez bada (sinadura herritar-ziurtagiriarekin), eskaeraren erakunde titularraren helbide fiskala Nafarroako Foru Erkidegoan dagoenean soil-soilik aurkeztu beharko da, eta honela aurkeztu ere:

a) 1. formatu digitalean eta 2. formatu digitalean: 2.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe.

b) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea.

Oharra: Aurreko 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 idatzi-zatietan aipaturiko dokumentazioa aurkeztu beharraz salbu daude kasuan kasuko ordezkari den pertsona fisiko edo juridikoaren bidez (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) I. eranskinaren 1 zenbakidun berariazko erantzukizunpeko adierazpena behar bezala bete eta hari dagokion laukia «x» batez markatu duten erakundeak.

2.5.- Eskaeraren erakunde titularrek Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duen alderdi politiko batekiko mendetasun organikoaren egiaztagiria, eta hura eskaturiko diru-laguntzaren hartzaile gisa hautatzea.

Egiaztagiria kasu bakoitzean Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duen alderdi politikoaren legezko ordezkaritza duen pertsona fisikoak emandako ziurtagiri bidez egingo da.

Ziurtagiria honela aurkeztu ahalko da:

a) 1. formatu digitalean eta 2. formatu digitalean: 2.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe.

b) Paperezko euskarrian: Alderdi politikoaren legezko ordezkaritza daukan pertsona fisikoak elektronikoki sinaturiko jatorrizkoa.

2.6.- Erakundeak zerga-betebeharren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

Aurkeztuko da soil-soilik erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera-formularioan nortasun-datuak eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez edo eskaeraren erakunde titularrak helbide fiskala Nafarroako Foru Erkidegoan duenean. Bi kasuetan ere, dagokion foru-ogasunak edo Zerga Agentziak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta honela aurkeztu ahalko da:

a) 1. formatu digitalean eta 2. formatu digitalean: 2.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe.

b) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa.

Formatu digitalean aurkeztuz gero, azpimarratzekoa da Nafarroako Foru Erkidegoaren Foru Ogasunak edo kasu bakoitzean dagokion Zerga Agentziak on-line zerbitzu hori badu, ziurtagiria zuzenean jaitsi daitekeela formatu digitalean elektronikoki sinaturiko dokumentu gisa.

Kasuan kasuko erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) esanbidezko baimena eman dion kasuetan laguntzen Organo Kudeatzaileari, azkeneko hau izango da egiaztapena gauzatuko duena.

Erakundeak Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

Aurkeztuko da soil-soilik erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera-formularioan Gizarte Segurantzarekiko betebeharren eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez. Kasu honetan, Asegurantza Sozialak luzatutako ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta ogasunarena bezalaxe aurkeztu ahalko da.

Formatu digitalean aurkeztuz gero, azpimarratzekoa da Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikotik (http://www.seg-social.es/Internet_1/Masinformacion/Preguntasmasfrecuen37888/Cotizacionyrecaudac48432/Cotizacionyrecaudac48433/index.htm#48431 ≡ http://tinyurl.com/3lrfruj) zenbait ziurtapen-zerbitzu balia daitezkeela.

Kasuan kasuko erakunde titularraren legezko ordezkari den pertsona fisikoak edo juridikoak (eskaeraren erakunde titularraz bestelakoa) esanbidezko baimena eman dion kasuetan laguntzen Organo Kudeatzaileari, azkeneko hau izango da egiaztapena gauzatuko duena.

3.- Diruz lagundua izateko aurkezturiko programa edo jarduerari buruzko dokumentazioa:

3.1.- 2012ko ekitaldian garatu beharreko programari buruzko memoria.

Memoriak albait xehatuena izan behar du, eta honako alderdi hauek aipatu behar ditu gutxienez:
a) Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegitik zein kulturalarenetik programak duen interesa (arrazoitu).

b) Erakundearen ibilbidea, gizarte-ezarpena eta hizkuntza-politika (arrazoitu).

c) Programaren edo jardueraren balizko zuzeneko onuradunen unibertsoa (arrazoitu).

d) Programaren edo jardueraren lurralde-eragina (arrazoitu).

e) Web-orriaren ezaugarriak (horrelakorik badago): Norentzat den (haren xede diren pertsonak edo kolektiboak), edukien egitura eta horiek eguneratzea, zerbitzuak eta horien doakotasuna eta, azkenik, erabilitako hizkuntzak.

Honela aurkez daiteke:

a) 1. formatu digitalean (aurkezpena formularioarenarekin batera): Kopia [baterakoa (a + b + c + d + … + z)] eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa, «Microsoft word» edo «excell» formatuetan, 2007ren pareko edo beheragoko bertsioa edo «FE» formatuetako edozeinetan. Telematikoki (on-line moduan) bete beharreko eskaera-formularioari (II. eranskina) erantsi behar zaio adierazitako kopia.

b) 2. formatu digitala («ondorengo» aurkezpena «Nire Gestioak» atalaren bidez): Kopia {kasuan kasu, baterakoa (a + b + c + d + … + z) edo banakakoa [(a) + (b) + (c) + (d) + (…) + (z)]} «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa, «Microsoft word» edo «excell» formatuetan, 2007ren pareko edo beheragoko bertsioa edo «FE» formatuetako batean, eta elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinekin, haren titulartasuna eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanari dagokiolarik.

c) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa.

3.2.- Programaren edo jardueraren aurrekontua.

a) Aurrekontua banandu eta xehatu egin behar da, aurrekontua bera burutzearekin zuzenean loturiko funtzionamendu-gastuak ere bilduta, halakorik balego.

b) Aurrekontuak orekatua behar du, hau da, gastuek eta diru-sarrerek kopuru berekoak izan behar dute, diru-sarreren atalean datu hauek zehaztuta:

b.1) Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila kanpoan utzita, xede bererako diru-laguntza eskatu zaien (edo eskatzeko asmo dagoen) estatuko zein nazioarteko administrazio eta erakunde publiko zein pribatuen zerrenda zehatza.

b.2) Zerrendako administrazio edo erakunde bakoitzari eskatutako diru-kopurua, edo eskatuko zaiona.

b.3) Eskaeren egoera (eskatzeko asmoa, ebazpenaren zain, diru-laguntza emanda, etab.).

b.4) Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

Aurrekontua honela aurkez daiteke:

a) 1. formatu digitalean eta 2. formatu digitalean: 3.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe.

b) Paperezko euskarrian: Eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukan pertsonak —fisikoak edo juridikoak— izenpeturiko jatorrizkoa.

4.- Programa edo jarduera egikaritzeko egutegia.

Ahal den neurrian, kronograma baten bidez azaltzeko eskatzen dugu.

3.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe aurkez daiteke.

5.- Ordainketak egiteko agiriak

Ebazpena aldekoa denean Administrazioak ordainketak egin ahal izateko, beharrezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean ordainketak egiteko behar diren datuak erregistratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorraren irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan araututakoaren arabera. Horretarako, bi aukera daude:

a) «Datuen alta/Hirugarren interesduna» inprimakia, honako helbide honetatik balia daitekeena: http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/eu_7999/adjuntos/alta%20de%20TERCERO.pdf ≡ http://tinyurl.com/3cujaay.

b) Aurrezki-libretaren edo kontu korrontearen libretaren kopia, edo banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-erakundeak) emandako edota ziurtatutako dokumentuarena; bertan honako datu hauek agertu behar dira gutxienez:

b.1) Banku-erakundearen izena.

b.2) Banku-erakundearen helbidea.

b.3) Kontuaren zenbakia (20 digitu).

b.4) Kontuaren titularra, eta hirugarren interesduna bera izan behar du.

Kasu honetan soilik aurkeztu behar da: erakunde eskatzailea ez badago alta emanda Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketan egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n eta azken hiru urteetan ez badu egin eragiketarik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin edo «Hirugarrenen erregistroa»n badagoen banku-datu edo helbideratze-daturen bat aldatu nahi badu.

Honela aurkez daiteke inprimakia edo frogagiria:

a) 1. formatu digitalean eta 2. formatu digitalean: 3.1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren bezalaxe.

b) Paperezko euskarrian: Eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukan pertsonak —fisikoak edo juridikoak— izenpeturiko jatorrizkoa.

Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren Diruzaintza Nagusiak egiten duen diru-sarrera jakinarazpeneko posta-helbidea, hala badagokio, izango da eskaera-inprimakiaren «Posta-jakinarazpeneko datuak» gunean ageri dena.

6.- Bestelako dokumentazioa:

Borondatez erantsi ahalko da formatu digitalean [ikus 3.1 puntuaren a) eta b) idatzi-zatiak] zein paperezko euskarrian (kopia sinplea edo jatorrizko sinatua, aurkezturiko dokumentuaren izaeraren arabera) aurkezturiko programa edo jarduera hobeto balioesteko eskaeraren erakunde titularrak egoki irizten dion beste edozein dokumentazio.

Oharra: Dena den, laguntza-programaren organo kudeatzaileak (Kultura Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza) edota Balorazio Batzordeak eskaeraren erakunde titularrari eskatu ahalko diote beharrezko iritzitako informazio eta dokumentazio beharrezko guztia aurkezturiko programa edo jarduera hobeto balioesteko.

B.- JUSTIFIKAZIOA

1.- III. eta IV. eranskinak (emandako laguntzaren justifikazio-inprimakia eta diruz lagundutako proiektuari buruzko beste datu batzuk eta emandako laguntzaren justifikazio-inprimakiarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, hurrenez hurren):

Biak nahitaez aurkeztu beharrekoak dira, baina, diru-laguntza eskatzeko I. eta II. eranskinekin gertatzen den ez bezala, lehenengoentzat ez dago formulario propiorik izapide elektronikoa baliatzeko (on-line), aldez aurretik «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinekin identifikatuta.

Aurrekoa esanda, biak ere honela aurkez daitezke:

a) Formatu digitalean («Nire Gestioak» atalaren bidezko aurkezpena): Kopia {kasuan kasu, baterakoa (a + b + c + d + … + z) edo banakakoa [(a) + (b) + (c) + (d) + (…) + (z)]} eskaneatua «pdf» formatuan («Adobe Acrobat»), 5.0-tik gorako bertsioa, «Microsoft word» edo «excell» formatuetan, 2007ren pareko edo beheragoko bertsioa edo «FE» formatuetako batean, eta elektronikoki sinaturikoa «Onarturiko Ziurtagiri Elektronikoak IE-Euskadi.net» deiturikoen arteko edozeinekin, haren titulartasuna eskaeraren erakunde titularraren legezko ordezkaritza daukanari dagokiolarik.

b) Paperezko euskarrian: Jatorrizkoa, laguntzaren erakunde onuradunaren legezko ordezkaritza daukan pertsona fisiko edo juridikoak (erakunde onuradunaz bestelakoa) sinaturikoa.

2.- Erakunde eskatzailearen dokumentazioa:

Hurrengo bi puntuetan (2.1 eta 2.2) adierazitako dokumentazioa kasu honetan soilik aurkeztu behar da: diru-laguntzaren eskaera aurkeztu denetik justifikazioa aurkeztu arteko aldian erakundearen legezko ordezkaritza aldatuz gero).

2.1.- Justifikazio-inprimakia sinatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak (erakunde onuradunaz bestelakoa) daukan legezko ordezkaritzako ahalmenaren egiaztagiria.

Aurkeztu beharko da soilik laguntzaren justifikazioari buruzko III. eta IV. eranskinak herritar-ziurtagiria daukan, eta ez erakunde-ziurtagiria, pertsona fisiko batek elektronikoki sinatu dituenean edo pertsona fisiko batek eskuz izenpetu dituenean, edo, kasuan kasu, pertsona juridiko batek, erakunde onuradunaz bestelakoa.

Egiaztagiri hori ahalordetzeko notario-eskrituraren kopia bidez egon ahalko da edo eskaeraren erakunde titularraren idazkariak horretarako emandako ziurtagiriaren bidez.

Honela aurkeztuko dira egiaztagiria/k:

a) Formatu digitalean: Emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

b) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea, edo, halakorik ezean, jatorrizko, sinaturiko eta zigilaturiko ziurtagiria denean.

2.2.- Pertsona fisikoaren nortasun-datuen egiaztagiria (NAN Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, AIZ Atzerritarraren Identifikazio Zenbakia) edo pertsona juridikoaren (erakunde onuradunaz bestelakoa) zerga-identifikazioko datuena (IFZ Identifikazio Fiskaleko Zenbakia), eskaeraren erakunde onuradunaren legezko ordezkaritza daukanarena.

NANa edo AIZ aurkeztea, kasuan kasu, beharrezkoa izango da soil-soilik erakunde onuradunaren legezko ordezkari den pertsonak baimena eman ez dionean laguntzen Organo Kudeatzaileari eskaera formularioan nortasun-datuak eskumeneko Administrazioan begiratzeko, egiaztatzeko edo frogatzeko indarrean dauden dagozkion elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

Pertsona juridikoaren IFZ aurkeztea (erakunde onuradunaz bestelakoa) kasu guztietan ere izango da beharrezkoa.

NANa/AIZ eta IFZ honela aurkeztu ahalko dira:

a) Formatu digitalean: Emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

b) Paperezko euskarrian: Kopia sinplea.

2.3.- Diru-laguntza jaso duen programari edo jarduerari buruzko memoria, ahalik eta zehatzena, haren egikaritzapena, betetze-maila eta ebaluazioa azaltzen dituena.

Memoria aurkez daiteke emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 2.2 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

2.4.- Diru-laguntza jaso duen programaren edo jardueraren egikaritzapenaren behin betiko aurrekontua (gastuak eta sarrerak); kopuruak ahalik eta xehatuen eman behar dira.

Aurrekontuak orekatua behar du, hau da, gastuek eta diru-sarrerek kopuru berekoak izan behar dute, eta diru-sarreren atalean honako datu hauek zehaztu behar dira, besteak beste:

a) Erakunde onuradunaren hasierako ekarpena.

b) Estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek xede bererako emandako diru-ekarpenak.

c) Kultura Sailak emandako diru-laguntza.

d) Beharrezkoa izanez gero, erakunde onuradunak aurrekontu-oreka lortzeko jarri behar izan duen diru-kopuru gehigarria; kopuru hori erakunde onuradunak metatutako defizita izango da ondorio guztietarako.
Egikaritzeko behin betiko aurrekontua aurkez daiteke emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

2.5.- Diru-laguntza jaso duen programa edo jarduera egikaritzeko egindako gastu guztien zerrenda (eredua V. eranskinean).

Entitate onuradunentzat erosoagoa izan dadin, «pdf» dokumentua erabil dezakete, betegarria eta inprimagarria, honako helbide honetan ageri den deialdiaren bidez balia daitekeena: http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46-797x/eu?r01kQry=tC%3Aeuskadi%3BtF%3Aprocedimientos_administrativos%3BtT%3Aayuda_subvencion%3Bm%3AdocumentLanguage.EQ.eu%3BcA%3Ar01e00000fe4e66771ba470b8101d0b01550f37ed%3Bp%3AInter_portal%2CInter%3B ≡ http://tinyurl.com/3d8rjzt

Salbuespen gisa, diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztutako hasierako gastu-aurrekontua 100.000,00 eurotik gorakoa izanez gero, aurkezten den zerrendako gastuen guztirako zenbatekoak aurreko diru-kopuruaren baliokide izan behar du.

Zerrenda aurkez daiteke emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

2.6.- Diruz lagundutako programa edo jarduera egitearen ondorioz sorturiko honako gastu horien egiaztagiriak, kasu bakoitzeko hirugarren interesdunaren aldeko ordainketaren librantza egin izana egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera:

a) Diru-laguntzaren eskaerarekin batera hasieran aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 50 baino gehiago Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kargura finantzatzen bada, gastu-aurrekontuaren guztirako zenbatekoa.

b) Aparteko kasuetan, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorraren aurrekontuen kargura diru-laguntzaren eskaerarekin batera hasieran aurkeztutako gastuen aurrekontuaren % 50 edo gutxiago finantzatzen bada, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa.

Eskuarki, nominak eta fakturak edo ordainagiriak hartzen dira gastu-frogagiritzat. Baliozkoak izateko, enpresaburuek eta profesionalek fakturak egin eta eman beharra arautzen duen indarreko zerga-araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko dituzte horiek guztiek.

b.1).- Gastu-frogagiriak aurkezteko moduari dagokionez, jatorrizkoak soilik onartuko dira; hala ere, besterik eduki ezean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak edo kasuan kasuko Lurralde Historikoko Kulturako Lurralde Zerbitzuak konpultsatutako fotokopiak aurkez daitezke.

b.2) Aurkezturiko jatorrizko frogagiriak zigilu edo zigilu-marka batekin markatu dira, bertan adierazita faktura edo baliokidea Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari emandako diru-laguntza justifikatzeko baliagarri izan dela.

b.2.1) Egokia bada edo erakunde onuradunak hori eskatuta, eginbide bat gauzatuko da, bertan adierazita frogagiri batena edo bat baino gehiagorena diru-laguntzari egozten zaion osorik edo partzialki. Zati bat bakarrik egozten bazaio, kopurua zehaztu behar da.

Honela aurkeztu ahalko dira frogagiriak:

a) Formatu digitalean: Emandako laguntzaren justifikazioari buruzko 1 idatzi-zatiko dokumentuak aurkezten diren modu berean.

b) Paperezko euskarrian: Jatorrizko edo fotokopia konpultsatua, aurretik hari zigilu-marka ezarrita.

2.7.- Diruz lagundutako programan edo jardueran oinarrituta sorturiko material bakoitzaren hizkuntza-bertsio guztien bi ale, euskarri fisiko/optiko/magnetikoan, horietan aipamena eginez Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesari, eta aipamen horrek euskaraz behar du edo, horrela ez bada, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (aurkezteko modua erabakitzeko garaian, erakundea harremanetan jarri ahalko da laguntzen Organo Kudeatzailearekin, hala nahi izanez gero).

Adierazitako material horiek aurkeztu beharko dira soilik erakunde onuradunak edo, kasuan kasu, hura ordezkatzen duen pertsona fisiko edo juridikoak III. eranskinean aipatzen diren berariazko erantzukizunpeko adierazpenen arteko azkena egin ez badu.

2.8.- 2. ordainketa 2013an egingo denez, eskaeraren erakunde titularra zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketan eguneratuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da (ikus eskaerari buruzko 2.6 eta 2.7 idatzi-zatiak).